

Alaves ♦ Errumaniarrak 2.000. milioi pezetako klausula du, baina Salamancak 500 milioiren truke eros dezake

Barça, Contraren egoeraz galdezka

Salamancarekin hitz egin ei du, gaztelarrek dutelako jokalaria fitxatzeko lehentasuna

Ivan Santamaria / Gasteiz

DENBORALDI paregabea egi-
ten ari da Cosmin Contra,
Alavesek Bucaresteko Dina-
motik udan fitxaturiko joka-
laria. Atzelariaren lan ona
zeresan asko ematen ari da,
eta talde handietako begira-
leen gustuko jokalaria bihur-
tu da. Baina badirudi beneta-
ko interesa azaldu duen
lehenbiziko taldea Barcelona
izan dela.

Kataluniarrek,
ordea, ez dute Ala-
vesekin harreman-
ik izan egoera
zein den jakiteko.
Aldiz, Salamanca-
rekin hitz egin du
Barçak, futbola-
riaren egoera ez
delako oso arrun-
ta.

Alavesek 250
milioi pezeta
ordaindu zizkion
Dinamori jokal-
ariaren truke, bai-
na, horretaz gain,
beste 75 eman
behar izan zizkion
Salamancari,
Gaztelako klubak
jokolariaren esku-
bideak erosiak zituelako.

Contrari 2.000. milioi peze-
tako klausula jarri zion Alave-
sek kontratua hitzartu zute-
nean. Haatik, Salamancak
operazioari baiezkua emateko
eskumen berezia gorde zuen,
eta baliteke aurtengo maia-
tzean jokalaria bereganatzea,
500 milioi pezeta ordainduta.
Izan ere, bere taldea indar-
tzea bainoago, Juan Jose Hi-
dalgo Salamancako presiden-
tearen asmoa talde handi bati

saltzea da, Contraren egoera
berezia baliatuta.

Contra: «Gasteizen jarraitu nahi dut»


Agertu diren informazioak
«zurrumurruak» besterik ez
direla adierazi zuen Cosmin
Contrak atzoko entrenamen-
du saioaren ondoren. Era
berean, bere ordezkariekin
egoera argituko duela aurre-
ratu zuen, horren

ondoren beharrez-
ko erabakiak har-
tzeko.

Alta, Salamancara
joan edo Alavesen
geratu nahi duen
galdetzen zaione-
an, errumaniarrak
ez du inolako
zaintzarik:
«Salamancak
ekainean fitxa-
tzen baldin
banau, gero beste
talde bati saltzeko
izango da. Hauta-
tzekotan, nahiago
dut Gasteizen
jarraitu, oso gus-
tura bainago zale
eta taldekidee-
kin».

Barcelonara joateko auke-
ra, ordea, «beste gauza bat»
dela esan zuen Cosmin Con-
trak. Alta, oraingoz, nahiago
duela Alavesen segitu esan
zuen.

Timisoara hirian jaioa, 24
urte ditu, eta atzealdeko
eskuin hegalean aritzen da
Contra. Orain arte 18 partidu
jokatu ditu, guztiak titular
moduan. Guztira, 1.570
minutu jokatu ditu, eta bi gol
sartu.



COSMIN CONTRA

■ ■ «Salamanca
aldera joan
baino nahiago
dut Gasteizen
jarraitu, gustura
bainago zale eta
taldekideekin»

Alex Ourenserra doa, Alaves uzteko akordioa itxita

I. S. / Gasteiz
ASPALDITIK bila aritu eta
gero, Alavesetik alde egiteko
irtenbide bat kausitu du
Alex Fernadezek. Asturia-
rrak akordioa lortu du
Ourenserekin, eta Galiziako
taldean ariko da denboral-
dia amaitu arte. Bigarren B
Mailako lehen multzoan
dago Ourense, eta Bigarren
Mailarako igoera ahalbide-
ratzen duen ligaxkan sar-

tzeko postuetan sailkaturik
dago.

Taldekideak agurtzeko
asmoz, jokalaria Mendizo-
rrotzan izan zen atzo goize-
an. Irribarretsu agertu zen
Alex, ia urte eta erdi jokatu
gabe iragan ostean egoera
gaintitzeko bidean dagoela-
ko. Alexek esan zuenez,
«etorkizunean aitzina egin
ahal izateko atzerapausoa
da Bigarren B Maila».

nk k TX ELKET
r f s n i
r c l s
l t l k m k

STEK
EM N
IKUSKIZUN I

ur
173

lust z - z rr
vs
r zn rr t - rr tx

José Luis
Estévez

5
TELECINC

91